

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a / 553. zenbakia




**EDADETUEEN
KULTUR
HAMABOSTALDIA**
Urrian ekitaldi ugari izango dira

SAN MARTINAK: JAIK ARGAZKITA/7 • TXIRRINDULARITZA: SAN MARTIN SARIA ZAPATUAN/10

AZALA: MIREN ALMARAZ / JATORRIZKO ARGAZKIA-ARTXIBOA

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE




Indartsuago.




Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio esprestan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobea den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

ATREBENTZIAEZPADA/ Zer moduz hasi dozu ikasturte berrixa?



IGOR OLAÑETA
9 urte

XABIER LABAKA
9 urte

MIREN URZELAI
9 urte

JOSU DIAZ
9 urte

OLATZ URRUTIA
9 urte

IZASKUN ARRIOLA
8 urte

Ondo hasi dot ikasturtia, gustora. Laugarren mailan hasi naiz, eta hirugarren mailan baino gehiago ikasgai bihar da. Gehixen gustatzen jaten Matematika.

Pozik hasi naiz, baiña pena pixka bat emon dost oporrrak bukatziak. Ingurunea da gehixen gustatzen jaten ikasgaixa, mendixak eta animalixak eta holakuak ikasten dielako.


Oso gustora hasi naiz. Pena pixka bat emon dost oporrrak bukatziak, baiña... Laugarren mailan hasi naiz, eta gehixen gustatzen jaten Ingurunea da, eta gutxien Matematika.

Pozik hasi naiz, baiña oporrrak bukatziak pena haundixa emon dost; oporretan oso ondo egoten da. Gehixen gustatzen jaten Matematika da. Gelan ondo pasatzen dot lagunekin.

Ez naiz hasi oso pozik, pixka bat bakarrik. Oporretan hobeto egoten da. Euskara da gehixen gustatzen jaten ikasgaixa eta gutxien, Matematika; zatiketak-eta ez jat gustatzen.

Oso pozik hasi naiz. Ez dost penarik emon oporrrak bukatziak. Hasi nahi nebana, oporretan aspertuta nengualako. Gehixen Hizkuntza gustatzen jat; gutxien, Lengua Castellana.

ITALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EDUKIONTZIAK LURREAN Erdialdean dauden hainbat edukiontzi lurrean iraulita azaldu ziren domeka goizean, baita martitzenean ere. Herritar batek haserre deitu du horren gainean kexatuko. Haren esanetan, alde zaharreko hainbat gune guztiz zikin geratu ziren edukiontziak iraulita, baita autoarekin ibiltzeko arriskutsu ere, errepide zatia hartzen zuen-eta edukiontzietako batek. /M.B.

ETABARRUAN...

<p>ASTEKO BERRIAK / 5</p> <p>Txapa jai asteburuan</p> <p>Txapa Irratiko kideek egoitza eta denboraldi berria inauguratzeko jai egingo dute asteburuan.</p>	<p>KIROLAK / 10</p> <p>Elkarrizketa: Fernando Oregi</p> <p>Fernando Oregi BKEko futbol saileko kirol zuzendaria izango da aurtengo denboraldian.</p>	<p>KULTURA / 12</p> <p>Erlantz Urtasun</p> <p>Nabarraldeko kide Erlantz Urtazuk hitzaldia egingo du hilaren 25ean. Elkarrizketa egin diogu.</p>
---	--	--

ASTEKODATUA

13

LAN ERRETIRATUEN KARTEL LEHIAKETAN

San Joxepe Kultur Hamabostaldirako deitutako Kartel Lehiaketara 13 lan aurkeztu dira. Anton Arrillaga izan da irabazlea. Aurkeztutako lanekin erakusketa egingo da urrian.

BESTEKEESANA

“ Aralarrek obsesio bat izan du: ezker abertzalea nola berregin. (...) Beharrezkoa ikusten dugu egoera politikoaren azterketa egitea, batez ere, ezker abertzalearena. **JUAN MARTIN ELEXPURU / Aralarko batzorde eragileko kidea 'Berria' / 03-09-11**

“ Racingen aurkako partiduan, Potillon zelaira atera zenean, deigarria izan zen Denoueix entrenatzaileak Agustin Arantzabal frantziarraren aurretik jartzea, ezker hegalean. Nik uste dut Arantzabal bera harritu zela entrenatzaileak zelaian agindu zion postu berriarekin. **JON TRUEBA / Kazetaria 'El diario vasco' / 03-09-16**

BERAIEKDIÑOĖ/ Aitziber Azkondo



Pig Brother

N eguko parrillak zer ekarriko digun pentsatzen, tripetan suzurien eztanda bezalako bat igartzen dut. Badakizue zer datorren ezta? Estatuko produktore indartsuen programa handien txanda da! Iskanbila, oihera eta "Enkarni" ama kementsu gehiago. *Gran Hermano*, *Famatuen Uhartea* eta *Operación Triunfo* reality- ez ari naiz. Badakizue *Gran Hermano* hainbat herrialdeetan egiten dela, batzuk beste batzuk baino "sexualago" dira gainera. Ingalaterra, Alemania eta iparraldeko herrialdeetan ez dira konplexuen lagun, eta harreman sexualak bere osotasunean ikusi ditugu. Azken albisteak Afrikatik datoz, han ere *Big Brother*-ek eman du zer esanik. Estatuko arazo larri izendatu dute hainbat gobernu, inmorala izateagatik. Namibian eta Malawin, esaterako, emisioa debekatu egin zuten, nahiz eta auzitegi gorenak geroxeago debekua jaso.

Hala ere, *reality*-en kontua ez da hor gelditzen; daukagunarekin nahikoa ez bada, orain *Pig Brother* deritzona agertu zaigu (abuztuan), momentuz Interneten bakarrik. *Big Brother*-en bertsioa baina txerriekin. Ingalaterrako nekazari bat izan da asmatzaile eta bost txerri lider laborista eta kontserbadoreen izena jarri die: Blair (lehen ministroa), Brown (ekonomia ministroa) eta Beckett (ingurumen zuzendaria). Eta sei milioi ikusle espero direla zioen BBCk. Nekazariaren hitzetan, bertan jasotakoa sukarrak aftosoaren eraginez kaltetuta izan direnei bideratuko zaie. Imajinatzen duzue horrelako zerbait Euskal Herrian? Helburu on bat: Euskal Herriko hondartzetan utzi diguten kaka beltz hori deuseztatzea. Protagonistak...; nortzuk izango ziren txerrien izena eramango zuten politikak? Nor etorri zaizu burura? Beharbada, programa tentsioak uxatzeko ezin hobea izango zen.

“Pig Brother agertu da Ingalaterran. Txerriekin egindako Big Brother-en bertsioa da”

Berrigara
Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale



BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ZAPATUA, 20**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 21**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 22**
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
- MARTITZENA, 23**
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 24**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- EGUENA, 25**
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 76 19 50
- UDALA**
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68
- BESTELAKOAK**
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea. Bergara. 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|-------------------------|--------------------------------|
| San Pedro | Labegarieta |
| Domekak: | Domekak: 11:00. |
| 09:30, 12:30. | San Lorentzo |
| Zapatuak eta lanegunak: | Zapatuak: 20:00. |
| 19:00. | Angiozar |
| Sierbak | Domekak: 11:30. |
| Lanegunak: 19:15. | Moja Zaharrak |
| Zapatuak: | Lanegunak: 09:00. |
| 19:00. | Zapatuak: 11:00. |
| Domekak: | Mizpirualde |
| 11:30, 13:00. | Lanegunak: 11:45. |
| Osintxu | Zapatuak: 17:30. |
| Domekak: 12:30. | Antzuola |
| Zapatuak: 19:00. | Domekak: |
| Elosu | 09:00, 11:30. |
| Domekak: 10:30. | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Ubera | Uzarraga |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 10:00. |
| San Juan | Elgeta |
| Domekak: 11:00. | Lanegunak: 09:00. |
| Elorregi | Zapatuak: 19:30. |
| Domekak: 10:30. | Domekak: 12:00. |
- URTE-MEZAK**
Santa Marina (Sierbetan)
Hileko bigarren astean, domekan, 11:30ean.
- San Pedro**
Hileko hirugarren astean, domekan, 12:30ean.

OHARRAK

INFORMATIKA IKASTAROAK
KZGuneak herritar guztientako informatika ikastaroen eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

XIPIZARO LUDOTEKA
Ikasturte berria irailaren 17an hasiko da. Izenematea Seminarioko lokalean egin daiteke, 17:15etik 19:30era. Argibideak 943 76 23 76 telefono zenbakian.

ARGAZKI LEHIAKETA
Kultur Hamabostaldiari begira, San Xosepe erretiratuen elkarteak Argazki Lehiaketa deitu du. Lanak irailaren 22ra arte jasoko dira. Argibideak: 943 76 30 09.

SAN JOXEPEREN IRTEERA IRAILAREN 25EAN
San Xosepek Larrunera eta Hondarribiara irteera antolatatu du irailaren 25erako. Bazkaria Larrunen egingo dute eta arratsaldea Hondarribian emango dute. Izenematea irailaren 19ra arte zabalik.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Odol Emaileen Elkarteak jakinarazi duenez, odol ateratzea egingo da eguaztenezan Seminarioko lokalean, 18:30ean hasita.

JARDUNEN AGENDA

TRIKITI ESKOLA URRIAN ABIAN
Jardun elkarteak antolatutako trikiti eskolak urrian ekingo dio ikasturte berriari. Soinu eskolak martitzenetan, eguaztenezan eta zapatu goizetan izango dira. Pandero eskolak, berriz, astelehenezan eta egubakoitzetan. Argibideak: 943 76 08 19.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN


Orkestra Sinfonikoak Huelvara irteera egin zuen

Orkestra Sinfonikoa Huelvan izan zen 1993ko irailean. Besteak beste, Bonares, Zalamea del Real, Punta Umbria eta Triguerosen jonek Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako taldeak. 63 musikarirekin batera, zazpi laguntzaile izan ziren Huelvan, tartean Luis Abajo zinegotzia.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

“Eskatza”



GORKA ORTEGA

Sukaldea.
—Gaur sukalde esaten da ia etxe guztietan eta ezkatz gutxi batzuetan.

ASTEKO FILMAK

‘ÚLTIMA LLAMADA’

ZUZENDARIA: JOEL SCHUMACHER. AKTOR-REAK: COLIN FARRELL, KIEFER SUTHERLAND.

HARIA. Joel Schumacher zuzendariaren (*Un día de furia*) film honetan tentsioa da nagusi. Stuk New Yorkeko kalean telefono dei bat erantzuko du, eta jarraian frankotiratzailer baten jomuga bihurtuko da...

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; eta astelehenezan, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●

‘LOS RUGRATS: VACACIONES SALVAJES’

ZUZENDARIAK: NORTON VIRGIE ETI JOHN ENG.

HARIA. Nickelodeon telebista kateko marrazki bizidunen telesaila zinemara eramane dute. Adin txikiaren artean jarraitzaile ugari dituzte Rugratstarrek, eta orain pantaila handian euren abenturerekin gozatzeko aukera dute.

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA 10°C
Eguaztena, 10

MAXIMOA 33°C
Martitzena, 16

ASTEKO EURIA (l/m²) 4,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	24 °C	10 °C	2,7 l/m ²
Eguena, 11	20 °C	15 °C	1,5 l/m ²
Egubakoitza, 12	24 °C	15 °C	0,2 l/m ²
Zapatua, 13	27 °C	14 °C	— l/m ²
Domeka, 14	26 °C	12 °C	— l/m ²
Astelehena, 15	31 °C	11 °C	— l/m ²
Martitzena, 16	33 °C	10 °C	— l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

‘EN UN LUGAR DE ÁFRICA’

ZUZENDARIA: JULIANE KOHLER. AKTOR- AK: MERAD NINDZE, MATTHIAS HABICH.

HARIA. Aurtengo Oscarretan saritutako filma. Redlich familia juduak naziengandik ihes egingo du, eta 1938. urtean Kenyara iritsiko da. Familiako kide batzuei oso gogorra egingo zaie bestelako bizimodu bat hastea...

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Eguenezan, hilaren 25ean, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

IKUSBI

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irala 5 BERGARA 943 76 53 09

TXAPA IRRATIA / Zabalotegiko aretoa laga eta gaztetxean egokitutako gune berritik hasiko dira emititzen datorren astetik aurrera

Txapa jaia antolatu dute astebururako, egoitza eta denboraldi berria zabaltzeko

MONIKA BELASTEGI

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, egingo dute Txapa jaia irratiko kideek. Denboraldi berriaren hasiera eta datorren astetik aurrera gaztetxean egokitutako gune berritik emititzen hasiko direla ospatuko dute. Zinema eta kontzertuak antolatu dituzte.

Denboraldi berriarekin batera programazio berria eta egoitza berria estreinatuko dituzte Txapa Irratiko kideek. Programazio berria datorren astean emango dute ezagutzera, eta egoitza berriari dagokionez, gaztetxeko lehen solairura joan dira.

Txapako kideen esanetan, datorren astean hasiko dira berriz emititzen, seguruenik. Dagoeneko eraman dituzte tresna guztiak Zabalotegiko aretotik gaztetxeko gune berrira, eta emisioa ahalbidetuko duen antena jartzea besterik ez da falta. Antena jarri ondoren, programazio zabala eskainiko du Txapak FMko 97,25ean: astelehenetik domekara eta 24 orduz emititzen du.

Gaur egun 25 lagun inguruk hartzen dute parte irrati librean; dena dela, atek irekita dituzte hurbildu nahi duten guztiendako. Irratsaioren bat egin nahi duenak, zapaturo, 12:00etan, egingo dituzten bileretara hurbildu besterik ez du. Bilerok orain arte Zabalotegin egin izan dituzte, baina aurrerantzean egoitza berrian izango dira.

TXAPAREN HIRUGARREN EGOITZA

Txapa Irratia 1984. urtean sortu zuten herriko hainbat gaztek, eta garai hartan, herriko sindikatu batek lagatako egoitzatik emititzen zuten. 1989. urtean, Udala-



Txapa 1984an sortu zen, eta sindikatu batek lagatako egoitzan ekin zion; 1989an Zabalotegira (irudian) joan ziren.

1989. urtean joan zen Txapa Zabalotegira. Aurrez, beste egoitza batean egon zen

rekin hitzarmena sinatu eta Zabalotegiko dorrera eraman zuten emisio zentroa, beheko solairura. Han ia hamalau urte eman dituzte, eta orain, egoitza berria estreinatzeaz dira gaztetxeko

Zabalotegitik gaztetxean egokitutako gune berrira lekuz aldatu dira

lehen solairuan Txapa Irrati libreko kideak.

TXAPA JAI ATEBURUAN

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, bitartean izango da Txa-


Txapa Irratiaren jaian zine maratonia, mahai ingurua eta kontzertua egongo dira

pa Irratiak antolatutako jaia. Gaur, egubakoitza, zinema maratonia egongo da 22:00etan, gaztetxean. Hiru film emango dituzte, guztiak irratiarekin eta komunikabideekin lotura duten filmak:

batetik, *Rebelión en las ondas*; bestetik, *Días de radio*; eta hirugarrenik, *Ciudadano Kane*.

Bihar, zapatua, Arrosako proiektuaren gaineko mahai ingurua egongo da; 10:30ean izango da, gaztetxean. Mahai inguruan Euskal Herriko hainbat irratilibretako ordezkariak batuko dira.

Gauean, berriz, 22:30ean kontzertua egongo da, gaztetxean. Bitaldeak hartuko dute parte: Bergarako Black Ships taldeak eta Donostiako Señor No taldeak, hain justu ere.



Gripearen kontrako txertaketa hasi da

Hilaren 17an hasi ziren eta urriaren 31ra arte iraungo du. Arrisku taldeak honakoak dira: 65 urtetik gorakoak, diabetikoak eta honako eritasunak dituzten gaixo kronikoak: biriketakoa, bihotzekoa, gibelegoa, giltzurrunekoa eta immunodeprimituak.

Osintxun, hango osasun etxean jarriko dituzte txertoak, irailaren 25ean, 12:00etatik 13:30era. Labegaraietan, berriz, polikiroldegian egingo dituzte txertaketak, irailaren 23an, 12:00etatik 13:00etara bitartean.

LABUR

Jabi Lazkano presoaren aldeko ekitaldi gehiago antolatu dituzte astebururako

Egubakoitzean hainbat lagun batu ziren Jabi Lazkanoren aldeko manifestazioan. Lazkanok hamar urte bete zituen kartzelan abuztuaren 6an, eta hori dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte haren omenez, egubakoitzeko manifestazioa tartean. Gaur, egubakoitza, mendiko diapositiba emanaldia egongo da Pol-Polen, 22:30ean. Lazkanoren irudiak ikusteko aukera egongo da eta Everesteko espedizio batekoak.

Etzi mendi ibilaldia egongo da. 08:00etan abiatuko da San Martin plazatik Irukuruzetara. Ondoren, bazkaria egongo da Artatse elkartearen. Txartelak salgai daude Arrano eta Pol-Polen.

Anbulatorioak eta Ertzaintzak telefono zenbaki berriak jarri dituzte

Anbulatorioak eta Ertzaintzak telefono zenbakia aldatu berri dute. Anbulatorioaren telefono zenbaki berria honako hau da: 943 03 54 30. Ertzaintzak jarri duen telefono zenbaki berria, berriz, honako hau da: 943 53 47 20.

PRESOAK/ Irailaren 1a ezker gose greba mugagabea dago Paulo Elkororen, Alemaniatik estraditatu izan daitekeelako

Paulo Elkororen egoeraren berri emateko prentsaurreko jendetsua martitzenean

MONIKA BELASTEGI

Herritar ugari batu zen martitzenean Pauloren egoeraren berri emateko prentsaurrekoan. Besteak beste, Alemaniari eskatu nahi izan zioten ez inplikatzeko Espainiako Estatuaren politika errepresiboan eta onar diezaiola Paulori Alemanian libre bizitzeko eskubidea.

Paulo Elkorok gose greban 16 egun bete zituela azaldu zuen haren arreba Kristina Elkorok martitzenean. Gogorarazi zuen irailaren 1ean mugagabe grebari ekitea erabaki zuela, batik bat bi arrazoiengatik: batetik, Alemaniako Estatuaren inplikazioa salatzeke, hau da, Euskal Herriaren eta Espainiako Estatuaren arteko politikan Alemaniako Estatuaren erakusten ari den jarrera salatzeke; bestetik, Alemanian libre bizi ahal izateko eskubidea aldarrikatzeko.

ATXILOTU ZUTENETIK AURRERAKOAK

Arrazoiok azaltzeko, Paulo 2003ko urtarrilaren 21ean Alemaniako Nurenberg hirian atxilotu zutenetik aurrerako gertakarien berri eman zuen Kristina Elkorok: "Municheko kartzelan sartu zuten nazioarteko terrorista salaketa pean, eta erregimen berezia ezarri zioten. Horren ondorioz, eskubideak guztiz ukatu zaizkio; besteak beste, eguneko 24 orduak bakarrik egoten da, eta horietako



MONIKA BELASTEGI

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, haren senitariek eta lagunak eman zuten prentsaurrekoa, hainbat herritarrek lagunduta.

23 ziegan; hamabostean behin baino ezin du bisitarik jaso; ezin du telefonoz deitu... Atxilotu eta gutxira, Espainiako Estatuak bi estradizio eskaera egin zituen, eta aurkeztutako frogak izan zen komisarian atxilotu batek torturapean egindako deklarazioa. Hala ere, Nurenbergeko epaitegiak bi estradizio eskaerak onartu egin zituen, eta nahiz eta Paulok abo-

katuaren bidez helegitea aurkeztu, epaitegiak ez zituen onartu. Hori horrela, beste helegite bat aurkeztu zuen, irailaren 4an, Alemaniako Auzitegi Konstituzionalean, eta erabakia edozein unetan eman dezake."

Martitzenean 16 egun bete zituen gose greban, baina familiariek haren egoeraren gaineko berri gutxi dutela azaldu zuten:

"Harekin berba egiteko aukerarik ez dugu izan azkeneko asteotan. Hurrengo bisita datorren astelehenean daukagu".

PAULOREN LAGUNAK

Pauloren lagunak ere egin zuten berba prentsaurrekoan, eta gogor salatu zuten Pauloren gainean hainbat mediotan esan direnak. Lagunen ordezkari Mikel Osto-

lazak Paulo deskribatzeko esan zuen lagunaren laguna dela eta Berberan egin duen bizimodua beste edozein gaztenera bezalakoa izan dela: "Herriarengatik lan asko egin izan du, Txapan, gaztetxean, herri olinpiadetan... Ekitaldi ugarietan lagundu izan du". Bestalde, azpimarratu zuen Paulo ez dela "inondik inora pertsona arriskutsua, ezta terrorista ere, euskal gazte konprometitua baizik, eta salatzen dugu politika faxista baten ondorioz nazioarteko terroristen zerrendan sartu izana gure laguna".

Horrez gain, gogora ekarri zuen Paulok 1998ko martxoaren 19an egin zuela alde herritik, "polizia operazio baten ondorioz", "Bere identitatea laga eta izen faltsuarekin bizi izatera behartua izan zen". Azken urteotan Alemanian bizi izan dela azaldu zuen Ostolazak: "Han bizimodu arrunta egiten zuen, neskalagunarekin, lanpostua zeukan, hizkuntza oso ondo daki... Nurenbergeko Udalean erroldatuta zegoen, nahiz eta identitate faltsuarekin izan".

PAULOREN ALDEKO EKITALDIAK

Egunero elkarretaratzeak deitu dituzte, 19:30ean, San Martin plazan. Bestalde, postalak atera dituzte Alemaniako Kanpo Harremanetarako Ministeriora bidaltzeko; tabernetan daude eskuragarri. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak dei egiten die herritar guztiei ekitaldietara.

GIDA 04 abian!

Telefono berria jarri baduzu

edo aldatu baduzu,

deitu 943 71 23 91 zenbakira edo bidali

ondorengo helbidera:

publi@goiena.com

Gida Komertziala,

zure eskuetan!

Informazio gehiago:

943 71 23 91

Azoka ezin hobea, danborrada alaiak eta kalean jende ugari San Martinetan

MONIKA BELASTEGI

San Martin jai politikak igaro ditugu eguraldi ona, jendea tamainan eta ekitaldiak ere franko.

Zapatuko izarra azoka izan zen. Herritarrek pozik, baratze-ko produktuen edertasuna ikusita, baita nekazariak ere, salmentak ez zirelako batera txarrak izan.

Danborradek ikusmin handia sortu zuten, ohi bezala, eta ibilaldian barrena zein San Martin plazan jende asko batu zen bai astelehenean, nagusien danborrada ikusteko, bai martitzenean ere, haurren danborrada ikusteko.

Bertako odolostea eta haragia dastatu ahal izan ditugu egunotan, baita okela gisatu lehiaketa ikusi ere.

Txosna batzordeak hainbat ekitaldi antolatu zituen; txosna jarri zuten Munibe plazan, eta horrek jaietako bizitasuna areagotu egin zuen.

Bestetik, hiru manifestazio egon dira: batetik, egubakoitzean, Jabi Lazkanoren omenez; bestetik, zapatuan, *Bergarako epaitegian euskaraz* lelopekoa antolatu zuen Euskal Herrian Euskaraz taldeak; eta astelehenean, *No apartheid. Autodeterminazioa* lelopean beste manifestazio bat izan zen.



AZOKAN GIRO EZIN HOBEA Halaxe da. Zapatu goizeko azokan giro ezin hobea izan, eta eguraldiak ere izan zuen zerikusirik horretan. Ohi bezala, barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa izan zen, eta honako hauek izan ziren sail bakoitzeko irabazleak: barazkien sailean, Jose Mari Zabalegi, Martuteneko Olatxo Etxekoa; fruten atalean, Kontxita Izagirre, Antzuolako Bidaurre baserrikoa; gaztari dagokionez, Ilarduiko Jose Maria Jauregik jaso zuen lehen saria; eta lore moztuen alorrean, berriz, Uberako Begoña Arteagak.



Astelehenean herritar ugari hurbildu zen nagusien danborrada ikustera.



Martitzenean umeak izan ziren protagonista nagusiak danborradan.



ASIER ENA ETA MAITE LAZKANO Bergarako bikoteak irabazi zuen domekan Moises Azpiazu zenaren oroimenez izandako Dantza Suelto Txapelketa. Bigarren Azpitarte anai-arrebak geratu ziren eta hirugarren, Aitzol Ena eta Miren Illarreta. Txapelketaren 19. aldia izan zen, eta 16 bikotek hartu zuten parte.



OKELA GISATU LEHIAKETA Zazpi elkarte hartu zuten parte. Lehen saria Antzuolako Trekutz elkarteko Gregorio Madariagak eta Gurutz Madariagak jaso zuten; bigarrena, Alzasu elkarteko Mariano Agirrek eta Agustin Badiolak; eta hirugarrena, Basalgo elkarteko Angel Martinek eta Mikel Gómezek.



Denetarikofradiek eman zioten kolorea domeka goizari.



Jabi Lazkano, autodeterminazioa eta euskara: hiru manifestazio.



Sustoren bat edo beste izan zuten batzuek sokamuturrean.


HIRU MUSIKARI GAZTE BURGOSEN

Musika Eskolako Orkestra Gaztean diharduten Amaia Anton (biola), Miren Ormazabal (biolontxelo) eta John Prieto (biola) Pradoluengon (Burgos) izan ziren uztailaren 3tik 13ra. Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolatutako egonaldian, gänberako eta orkestrako hobetze eskolak izan zituzten beste hainbat musikarekin batera. Musika saioak egiteaz gain, primeran pasatu zuten Burgosen. Eta egonaldia ezin hobeto amaitzeko, kontzertua eskaini zuten Pradoluengoko elizan. Burgosen ateratako argazkian, eskuinaldean, aurrean, Miren Ormazabal eta Amaia Anton. Atzean, zutik, John Prieto.



HAURTZAINDEGIAREN ITXURA BERRIA

Haurtxoa haurtzaindegian berritze lanak egin dituzte. Uztailean hasi ziren obrak, eta berrikuntza nagusiak eginak dituzte dagoeneko. Besteak beste, lurra jaso, gela eta espazio berriak sortu, komunak aldatu, hormak margotu eta altzari berriz hornitu dute haurtzaindegia. Ikasturte berrirako itxura ezin hobea hartu du haurtzaindegia.




POL-POLEKOAK PIRINIOETAN

Pol-Poleko mendizale betanoek denboraldi berriari ekin diote, eta irailaren lehenbiziko aste bukaeran Pirinioetan izan ziren. Gouretten (1.345 m) eta Formigaldik gertu dagoen Ossau haranean ibili ziren. Herriko 44 mendizale joan ziren eta oportetatik bueltan sasoi onean daudela erakutsi zuten. Egindako zeharkaldiko puntu altuenean dago aterata argazkia, Col Plaa Segoune-n (2.445 m). Hurrengo irteera Iparraldeko Irubelaskoa mendira egingo dute, irailaren 28an.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko **deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!


943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

MINGAINARITIRAKA



Francis Sasieta

INTXORTA TABERNAKOA

Berrogei urte dira Francisen aitak Intxorta taberna ireki zuenetik, 1963ko San Martinetan zabaldu zuen-eta. Francis 14 urterekin hasi zen tabernan lanean, eta Elisabeth Agirre emazteak laguntzen dio gaur egun. Bi alaba daukate.

- Tabernaria, bokazioz? Txikitan zer izan nahi zenuen?
- Bokazioz baino gehiago, ofizioz. Txikitan? Toreatzaile-edo.
- Laneko gauza onena eta txarrena?
- Onena eta txarrena, jendea ezagutzea.
- Zure lanerako beharrezko dohaina?
- Pazientzia ezinbestekoa da ofizio honetan.
- Tabernara gizonezko ala emakumezko gehiago etortzen da?
- Gizonezko nagusiak etortzen dira gehienbat.
- Eta zein da gehien ateratzen duzun edaria?
- Ardoak, txikiteoko taberna da hau.
- Txikiteoak behera egin du?
- Bai, ohiturak aldatuz doaz eta...
- San Martinetako gauza onena?
- Egoten den giroa, herriko jendea dabilela.
- Egunkarian irakurtzen duzun lehenbiziko gauza?
- Gurutzegrama egiten dut lehenbizi.
- Eta zein albiste irakurri nahi zenuke?
- Realak liga irabazi duela.
- Eta zer egingo du Realak European?
- Hurrengo faserako sailkatuko dela uste dut.
- Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?
- Irakurtzea.
- Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?
- Cien años de soledad (Gabriel Garcia Marquez)/La noche americana (Truffaut)/Pablo Milanes.
- Gustuko janari eta edari bana?
- Marmitakoa eta ardo beltza.
- Sukaldari ona zara? Zure espezialitatea?
- Ez, emaztea ni baino hobeto moldatzen da sukaldean...
- Kinielan edo loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?
- Taberna itxiko nuke berehala.
- Nora egingo zenuke bidaia bat?
- Australiara joango nintzateke gustura.
- Nork irabaziko du Vuelta?
- Idelarik ere ez, ez nabil jarraitzen.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Aiert Lizarralde

SANTIAGO BIDEA / 2003ko abuztuan

Gabonen ostein-edo hasi ginen Santiago bidea bizikletan egiteko ideia aztertzen, eta azkenean lau lagun animatu ginen udan bidaia hori egiteko: Arantzazu Agirre, Javi Arrondo, Ainhoa Larrañaga eta laurok. Javi eta Arantzazu abuztuaren 9an abiatu ziren Orreagatik eta Ainhoa eta biok bi egun geroago Lizarratik. Logroñon elkartu ginen gero.

Bidaia prestatzeko Millan Bravok idatzitako *Guía práctica del peregrino. El camino de Santiago* (Everest argitaletxea) erabili genuen. Oso informazio zehatza dakar eta primeran etorri zaigu bidaian zehar, ibilbidea zehazteko eta aterpetxeak bilatzeko, esaterako.

Egia esateko, bidaiari ekin aurretik ez ginen askorik ibili bizikletan. Lehenengo eguna uste baino gogorragoa egin zitzaigun, baina handik aurrera nahiko ondo ibili ginen. Erritmo lasaian egin genuen Santiago bidea, eta, batez beste, egunean 60-70 kilometro inguru egiten genituen. Hori bai, bero handia izan dugu; egun batzuetan 40 graduko tenperatura izan genuen.

Batez ere pistetatik ibili ginen eta errepidean apenas sartu ginen. Kirola, turismoa eta gastronomia uztartzeko aukera dago Santiago bidea egiterakoan, eta horixe egin genuen: bizikletarekin



“Erritmo lasaian egin genuen Santiago bidea. Egunean 70 kilometro inguru egiten genituen”

“Bizikletan joatean, kirola, turismoa eta gastronomia uztartzeko aukera dago”

gozatu genuen. Turista *motxilero* asko zegoen Santiagon, eta hiria bera oso ederra da. Bi egun eman genituen han, eta alokatutako auto baten bueltatu ginen. Bidaiarekin liluratuta etorri gara laurok.

EDU MENDIBIL



Arantzazu Agirre, Javi Arrondo, Aiert Lizarralde eta Ainhoa Larrañagak 800 kilometro inguru egin dituzte Santiagora bidean.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

matrikula zaitez!



ELKARRIZKETA

FERNANDO OREGI/BERGARA KIROL ELKARTEKO FUTBOL SAILEKO ARDURADUNA

"Azpiko kategorietan berdintasuna da nagusi, diferentziak murrizten ari dira"

EDU MENDIBIL

Hogei urtetik gora daromatza BKEn Fernando Oregik (50 urte) azpiko kategorietan lanean. Aurten bera izango da futbol saileko kirol zuzendaria.

Zein izango da zure zeregina?

Talde guztiak koordinatzea eta entrenatzaileei aholkuak ematea. Jarraipen lana egitea, azken batean. Entrenatzaile guztiak lankidetzan, ikusi zer behar dau den eta zer hobe daitekeen.

Zenbat futbol talde izango ditu aurten BKEk?

Infantil mailakoa, kadete mailako bi, gazte mailako beste bi, erregional mailakoa eta preferentekoa. Era berean, nesken bi talde ditugu, kadete eta senior mailetan. 180 jokalarik inguru dauzkagu. Infantil mailako beste bat ateratzeko jokalariek ditugu, baina Federazioak ez digu baimenik eman. Horretarako, bietako batek ohorezko mailan egon behar zuen, eta ez da gure kasua. Hala ere, 12-13 urtekoen jarraipena gertutik egin nahi dugu.

Osasun ona du Bergarako harrobiak?

Bai, maila polita dago. Hala ere, gaur egun berdintasuna da nagusi eta guztiek gogor borro-

katu beharko dute.

Taldeko posturen bat betetzeko zailtasunik izan duzue?

Ez, baina deigarria izan da gaztetxoaren artean, zein postutan jokatzea nahi zuten galdetzean, horren gutxik nahi izatea aurrelari jokatzea. Izan ere, gaur egun zelai erdian jokatu nahi dute gehienek.

Azpiko kategorietan zeri ematen diozue lehentasuna?

Gure asmoa zera da, gaztetxoaren hezkuntzan nolabait parte hartu. Kirola egitea baliagarria gertatuko zaie etorkizunean, kirolak hazten laguntzen du-eta. Neska-mutikoen futboleko gustura jardutea da gure helburu nagusia.

Aurreko urteotan instalazio aldetik zeuden hutsuneak salatu izan dituzu.

Dagoena dago eta kirolgune berria egin bitartean horrekin konformatu beharko dugu. Entrenatzaileak zein jokalariek gustura

"Entrenatzaileekin lankidetzan, talde bakoitzaren jarraipena egitea da nire lana"


egotea da nire eginkizunetako bat, eta material aldetik, behintzat, talde guztiak behar bezala hornitzen saiatuko gara, guztiak motibatuta entrena daitezten, taldeak baliabide guztiak jartzen dituela ikus dezaten. Argi dago kirolgune berria egiten denean jauzi kualitatibo handia emango dugula, belar artifizialeko bi zelai izango ditugu-eta gaur Ipintza dagoen tokian.

Gipuzkoako Federazioak eta Realak ondo zaintzen dituzte probintziako taldeak?

Bai, Federazioa ondo portatu da beti gurekin, ez daukagu kexarik. Eta Realak ere beti agertu da laguntzeko prest, hala eskatu diogunean. Harreman ona dugu.

Bailarako jokalariek gutxi iristen da Realera. Zergatik?

Bai, azkenaldian horrela izan da, baina horrek ez du esan nahi jokalariek mailak behera egin duenik. Oso jokalariek interesgarriak daude Bergaran eta inguruan, baina antzeko jokalariek baten aurrean, Realak lehentasuna emango dio Donostia aldeko bati Bergarako bati baino. Dena dela, gaur egun Realeko azpiko taldeak, gazte mailakoa esaterako, ez dira horren estratosferikoak. Diferentziak murrizten ari dira, berdintasun handia dago gaur.



Amateur mailako San Martin Txirrindulari Saria jokatuko da zapatuan Bergaran

E.M.

Bihar, zapatua, San Martin Txirrindulari Sariaren 38. ekitaldia jokatuko da, 16:00etan hasita. 23 urtetik azpiko amateur mailako txirrindulariak izango dira lehian eta proba Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da. Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta, proba Matxiategin hasiko da eta 18:40ak aldera amaituko da toki berean. Bien bitartean, txirrindulariek 108 kilometroko ibilbidea bete beharko dute. Mendate bakarria igo beharko dute, Asentzioko gaina, 100. kilometroan. Igoera hori erabakigarria izango da, ziurrenik.

Horrelakoetan zaila da fabroritoak zeintzuk diren aurreratzeko. Denboraldi amaierara indartsuen heldu direnen artean erabakiko da irabazlea. Bergararrei dagokienez, Debabarrena taldean diharduten Iñaki De Benito,

Zigor Medina eta Iñigo Larrañaga izango dira irteeran.

LOKATZAREN URTE ONA

Mikel Larrañaga Lokatzako presidentek zera adiera digu: "Amaitzean dagoen denboraldirekin pozik gaude. Kirol emaitza onak lortu ditugu eta antolaketa aldetik geneuzkan konpromisoak ondo atera dira. Infantil mailako taldean 18 lagun ibili dira eta horrek etorkizunari begira animuak ematen dizkigu. Bestalde, gazte mailan Unai Arantzabalek eta Kepa Varelak denboraldi ona egin dute eta Arantzabalek eta Gurutz Larreak irabazitako lasterketak albiste pozgarriak izan dira".

Datorren denboraldiari begira, Euskal Herriko Itzuliaren lehen etaparen antolaketa izango da Lokatzaren erronka nagusia. Bergaran hasiko da Itzulia, apirilaren 5ean.



Agirre, De Benito, Medina eta Larrañaga, amateur mailako tropeleko bergararrak.

MENDIA

Pol-Poleko beteranoen irteera irailaren 28an

Pol-Pol Mendizale Taldeko beteranoek irteera antolatuta dute datorren domekarako, hilak 28. Iparraldeko Irubelaskoa mendira joango dira. Bidarrai ingurura, hain zuzen. Argibideak eta izenematea 943 76 48 51 telefonoz.

KIROLDEGIA

Yoga eta tenis ikastaroetarako izenematea zabalik

Zabalik dago yoga eta tenis ikastaroetarako izenematea. Yogakoak, hileko, 16,30 euro balio du bazkideendako eta 22,80 gainerakoendako. Tenisekoak, berriz, 19,50 euro bazkideendako eta bestela 22,80 euro. Izenematea Kirol Zerbitzuan, aste barruan, 07:30etik 13:30era.

PILOTA

Ander Muguruzak Lezoko finala irabazi zuen Bengoetxearekin

Finalan Larramendiri eta Solozabali irabazi zieten (22-19)

EDU MENDIBIL


Jon Bengoetxea eibartarraren bikotea osatuz, Ander Muguruza pilotari bergararrak Lezoko finala irabazi zuen domekan, 22-19. Era berean, txapelketako pilotari onenaren trofeo eskuratu zuen Anderrek. Abuztuan Zarauzko txapelketa ere irabazi zuen.

Denboraldi amaiera bikaina egin du Anderrek. Alde batetik, Zarauzko finala irabazi zuen abuztuaren 28an. Anderrek eta Argotek 22-9 irabazi zieten Huiziri eta Mendizabali, eta Lezon gertatu bezala, txapelketako pilotari onena izendatu zuten. Aurreko domekan, Lezoko txapelketa irabazi zuen Bengoetxearekin, finalan Larramendiri eta Solozabali irabazita, 22-19.

Martitzenean, berriz, ez zion udako bolada onari eusterik izan. Muguruzak eta Igor Gutierrezek 19-22 galdu zuten Erauskin anaien aurka, Bergaran.

PILOTA ESKOLA ABIAN

Bestalde, pilota sailak jakinarazi duenez, 1990-92 bitartean jai-



Ander Muguruza pilotari gazteak (21 urte) denboraldi amaiera bikaina egin du.

tako gaztetxoak martitzenean, irailaren 23an, hasiko dira entrenamenduetan, martitzenetan eta eguenetan, 19:00etan. 1993-96 artean jaiotakoak, berriz, hilaren 26tik aurrera entrenatuko dira,

egubakoitzero, 17:00etan. Pilota eskolan parte hartzeko interesa dutenei, ordu horretan Udal Pilotalekuan azaltzeko eskatzen diete. Azarotik aurrera ez da izena emateko aukerarik egongo.

Datorren aste bukaeran hasiko da Futbito Txapelketa

E.M.

Futbito Txapelketako beste ekitaldi bat hasiko da hurrengo zapatuan, hilaren 27an. Eguaztenean -lerro hauek idazterakoan- izena emateko epea zabalik zegoen oraindik, baina antolatzaileek emandako informazioaren arabera, 20 talde inguruk hartuko dute parte aurtengo edizioan. Eguazten arratsaldean taldeetako ordezkariekin batzarra egitekoa zen, kultura etxean. Eta behin talde kopurua zehaztu eta gero, zenbat multzotan banatu erabaki behar zuten antolatzaileek.

Horrela, multzo bakoitzeko onenak play-off-etarako sailkatuko dira, aurreko urteotan moduan. Esan dugun moduan, lehenbiziko jardunaldia datorren aste bukaeran jokatu da. Talde bakoitzak 170 euro ordain behar izan ditu txapelketan parte hartzearentzat.

Joan zen urteko ekitaldian 30 talde izan ziren lehiari eta Mongatxurrak taldea izan zen nagusi, ligako eta kopako finalak irabazi zituen-eta. Ligako finalan A Ze Flaxari irabazi zioten eta kopakoan, berriz, 3-2 irabazi zioten Bayer taldeari.



Mongatxurrak taldea, ligako eta kopako azken txapelketa.

ARTIBOIA

Lau futbol partidu jokatuko dira zapatuan Ipintzan

E.M.

Bihar, zapatua, lau partidu jokatuko dira Ipintzako futbol zelaietan. Ohorezko gazte mailako taldearendako izan ezik, gainerakoendako ligako lehen partidua izango da biharkoa. Abian da liga.

Infantil mailako taldearen partiduak emango dio hasiera biharko Ipintzako futbol jardunaldia. Gorka Larrañagak zuzendutako gaztetxoek Almen taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak,

10:00etan. Jarraian lehen mailako kadete taldeak Mariñoren bisita izango du, 11:30ean. David Lopez de Abetxuko dugu bergararren entrenatzailea.

BI PARTIDU ARRATSALDEAN

Arratsaldean, berriz, beste bi partidu jokatuko dira Ipintzan. Lehen erregional mailako taldeak Eibartarrak taldearen aurka jokatuko du ligako lehen partidua, 16:30ean. Bi taldeak sailkapeneko goialdean egoteko faboritoen artean ditugu. Bigarren urtez Andoni Azkargorta antzuolarra

izango da taldeko entrenatzailea. Aurreko denboraldian maila ona erakutsi zuen taldeak.

Azkenik, ohorezko gazte mailako taldeak Aretxabaletaren aurka jokatuko du, 18:30ean. Iaz Euskal ligan aritu ziren mahoneroak, baina mailaz jaitzi ziren eta aurten ohorezko ligan dihardute. Lehenbiziko jardunaldian 3-1 galdu zuten, Zarautzen. Jon Irزابalen gol bati esker markagailuan aurre hartu zuten arren, bigarren zatian zarautzarrak nagusitu ziren. Bihar lehen garai-pena eskuratzen saiatuko dira.



Futbol saileko talde gehienek denboraldi berriari ekin diote.

ARTIBOIA

P. Manso

OPTIKO OPTOMETRISTAK

Titaniozko armazoiak 99 eurotik aurrera

Irizar 2, Bergara. Tel.: 943 76 27 86





Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.

Eskulan ikastaroak

Ana Orgazen ardurapean

Zeramika

Enkudernazioa

Eskulanak

Irakaslea: Ana Orgaz

Egunetan

18:00-20:00

Izen ematea: Ardatza



Tailaketa

Irakaslea: Ascensio Esnaola

Egunetan

18:00-20:00

Izen ematea: Ardatza

Ikastaro guztiak Koldo Eleizalde 2-an emango dira
Informazioa:

943 76 35 99

(eguztenetan 10:00-13:00 eta 16:00-20:00)

Gantxilloa

Bainikak

Kurutze puntua

Irakaslea: Tere Agirrezabal

Egunetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izen ematea: Igartza mertzeria

Bolilloa-Bainikak

Irakaslea: Idoia Ibañez

Martitzenetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izen ematea: Igartza mertzeria

E, TXO!

GUREGAIK/ IKASTAROAK

Kutxak ikastaro ugari antolatu ditu Bergaran ikasturte berrirako

AINZANE IRIZAR

Irailaren 8a ezker zabalik dago Aula Gazteketxa ikastaroetan izena emateko epea. Gipuzkoako hainbat herritan antolatu ditu Kutxak gazteendako ikastaroak, tartean, baita Bergaran ere.

16 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta, era guztietako ikastaroak antolatu ditu Kutxak ikasturte berrirako. Hona hemen Bergaran antolatu dituenak: Photoshop eta Flash programen ikastaroak, latindar dantzak, yoga, sukaldaritza eta gozogintza eta makillajea, hain zuzen ere.

Photoshop ikastaroa 12 ordukoa izango da eta azaroan egingo dute. Flash programaren ikastaroa, berriz, web orrien animazioaren gainekoa, otsailetik apirilera egingo dute eta 15 ordukoa izango da. Latindar dantzen ikastaroari dagokionez, 15 ordukoa izango da eta euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera egongo da; euskarazkoa urtariletik apirilera izango da eta gaztelaniazkoa, berriz, urritik abendura.



Sukaldaritza ikastaroak Pertxa elkartean izango dira.

Sukaldaritza eta gozogintza-
ren gainean egingo den ikastaroa
16 ordukoa izango da; gazte-
laniazkoa, urrian hasiko da eta

abenduan bukatuko da eta eus-
karazkoa, berriz, datorren urte-
ko urtarilean hasi eta martxo-
an bukatuko da.

Azkenik, makillaje ikastaroa ere egongo da Bergaran, esan bezala, eta sei ordukoa izango da. Ikastaro hori ere euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera egongo da; euskarazkoa azaroan izango da eta gaztelaniazkoa, otsailan eta martxoan. Badago, beraz, zer ikasi Kutxaren eskutik.


Ikastaro horietan guztietan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da Kutxako bezeroa izatea eta 16 eta 29 urte arteko gaztea izatea.

Esan bezala, zabalik dago izena emateko epea. Interesatuok www.begira.com helbidearen bitartez eman dezakezue izena, Internetetik egin nahi izanez gero. Telefonoz, berriz, zenbaki honetara deituta: 943 44 08 63.

INGURUKO HERRIETAKO IKASTAROAK

Arrasaten eta Oñatin ere egingo dituzte ikastaroak, eta bergararrok ere har dezakezue parte. Arrasaten, esaterako, web orrien edizioaren gaineko ikastaroa, Autocad eta Internet eta musikaren gainekoa egongo dira. Oñatin, berriz, web orrien edizioaren gainekoa eta lantegi informatikoa antolatu dituzte.

Hauek bai nire ametsetako filmak!



IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

ETA ORAIN ALOKATU ZURE ETXETIK
www.videomatic.com/irala



Simon Arrieta 4. Tel.: 943 76 21 81. Faxe: 943 76 73 33

video_irala@infonegocio.es

ELKARRIZKETA

ERLANTZ URTASUN/NABARRALDEKO KIDEA

“Frantzia, Paris; Italia, Erroma... Euskaldunen hiriburua Iruñea da”

MONIKA BELASTEGI

Hilaren 25ean Nabarralde kultura ekimena aurkeztuko du Erlantz Urtasun elkarteak kultura etxean. 19:30ean izango da aurkezpena. Honakoa kontatu digu Urtasunek Nabarralderen gainean.

Zer da Nabarralde?

Kultura ekimen bat da, kultura enpresa bat. Eta gure oinarria da euskal kultura, euskara, gure lurraldetasuna eta Nafarroa guztiaren gakoa dela aldarrikatzea.

Euskal Herritzat duguna, beraz, Nafarroa beharko luke izan.

Nafarroan duela hamar urte Lehiotikan izeneko musika taldea sortu zen, eta haien abesti batean esaten dute Euskal Herria Nafarroa dela.

Guk esaten duguna da guretzat argi dagoela zazpi probintziak Euskal Herria direla, baina Euskal Herria da gure nazioaren alde kulturala, gure oinarri kulturala. Hori politikoki egituratzen denean, ez da Euskal Herria deitzen, Nafarroa baizik.

Maiz entzuten dugu Frantziako futbol selekzioari gailar selekzioa deitzea; portugaldarrei, lusitaniarrak... Oso arrunta da hori Europan. Eta guri ere horrelako zerbait gertatzen zaigu; guk geure buruari euskaldun deitzen diogu kulturalki. Baina politikoki nafarrak gara.

Historiak erakusten digu hori agirien bidez. Adibidez, garai batean, euskaldun independenteari nafar deitzen ziotela irakurri digu. Eta beste estatu edo sistemaren batek menderaturik zegoen euskaldunari, berriz, vasco deitzen zioten. Horrelakoak argigarriak dira.


Historian oinarritzen zarete, beraz.

Kontzientzia astintzeko laguntzen du. Dena dela, beti etorkizunari begira egiten dugu lan. Gauza bat da oinarria, sustraiak eta horrelako gauzak, eta beste gauza bat da horretan bakarrik geratzea; ezta gutxiago ere.

Historiak kontzientzia astintzen laguntzen duela esan dut; izan ere, guztiok gertatu zaigu, bada, ikasi duguna ez dela zehatz-mehatz gure herriaren historia, eta horren inguruko hausnarrek beti laguntzen dute. Hobe da gure burua ongi ezagutzea etorkizunari begira urratsak emateko.

Gipuzkoan, Bizkaian, Zuberoan... Nola hartu dute nafar izate hori?

Aurkezpen txikiak egiten ditugu herrietan. 700 sustatzaile ditugu, dagoeneko hilero lagun-



ARTXIBOA

“Euskal Herria gure nazioaren oinarri kulturala da, baina politikoki nafarrak gara”

“Gurea bezalako sentsibilitatea askok dute. Diasporatik ere erantzun ona jaso dugu”

tza ematen. Eta sustatzaile figura sortu genuen termometro gisa egiteko, jakiteko gure aldeko sentsibilizaziorik ba ote dagoen.

Badugu jendea, Zuberoan, Lapurdin, Bilbon... Konturatu gara, sentsibilitate hori badela, eta orokorra dela.

Nafarroako mendebalean, hau da, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, badira nahiko era sentimentalean bakarrik ikusten dutenak Nafarroa. Baina hala ere, konfiantza eman digute.

Hainbat gauza ez dira zalan-tzan jartzen: Frantzia, Paris; Italia, Erroma... Bada, euskaldunon hiriburua Iruñea da.

Bestalde, diaspora aldetik ere erantzun ezin hobea izan dugu. Jende askok badu gurea bezala-

ko sentsibilitatea. Milaka kilometrorra bizi dira, eta guregana hurbildu dira, eta horrek esan nahi du nahiko sentsibilitate zabal dela.

Hilaren 25ean egingo duzun hitzaldian zer entzun ahal izango dugu?

Bi zati ditu hitzaldiak: alde batetik, gure ideologia azaltzen dugu, zer den defendatzen duguna eta zergatik. Nola ikusten dugun gaur egungo panorama ere bai ...

Beste aldetik, Iturralde elkartetik nola sortu zen Nabarralde, nola dagoen egituratuta, nortzuek dihardugun lanean, zein den gure eguneroko lana eta antzekoak azalduko ditut eguneneko hitzaldian.

Gaur hasiko da Jardun elkartearen Jolasleku Ibiltaria

MONIKA BELASTEGI

Laugarren urtez jarraian, Jolasleku Ibiltaria antolatatu du Jardun euskara elkarteak. Umeei euskaraz jolas egiteko baliabideak eskaintzea du helburu. Egubakoitzetan izango da, aldiko herriko toki baten.

Jardun elkarteak Jolasleku Ibiltaria antolatatu du ikasturte berriarekin bat eginez.

Hain zuzen, 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago Jolasleku Ibiltaria, eta helburua da euskal kantuen eta jolasen bidez euskaraz jolas egiteko

baliabideak eskaintzea umeei, bereziki ahozotasuna landuta.

Horretarako umeak eta haien guraso edo zaintzaileak batzen diren tokietara hurbilduko da Jolasleku Ibiltaria. Lehenengo saioa gaur, egubakoitza, da, Espo- loian, 17:00etatik 19:00etara.

DATOZEN HIRU EGUBAKOITZETAN SAIO GEHIAGO

Jolasleku Ibiltariaren gaineko saioak honako egunetan izango dira: irailaren 26an, Usondo parkean; urriaren 3an, Fraiskozuri plazan; eta urriaren 17an, Espo- loian. Saio guztiak 17:00etatik 19:00etara izango dira.

Eguenean hasiko da aurtengo zineklub denboraldia

MONIKA BELASTEGI

Datorren egunean, hilaren 25ean, ekingo dio zineklubak denboraldi berriari. Apirilaren bukara arte iraungo du, eta ohi bezala 20:00etan izango da.

Denboraldi bakoitzean 30 film inguru eskaintzen ditu zineklubak, eta denboraldi berria *En un lugar de África* filmak irekiko du, datorren egunean.

En un lugar de Africa Alemanian eginikoa da. Juliane Köhler-ek, Merab Ninidze-k eta Matthias Habich-ek zuzendu dute. Aurtengo Oscar sarietan Atze-

rriko Film Onenaren saria jaso du.

Redlich familia juduaren istorioa kontatzen du. Naziengandik ihes egingo dute, eta 1938an Kenyara iritsiko dira. Familiako kide batzuei oso gogorra egingo zaie bizimodu berria hastea.

ZEHAZTUTAKO BESTE FILM BATZUK

Urriaren 16ra arteko filmak zehaztuta daudela azaldu du Josean Azkarate-Askasua zinemako arduradunak: urriaren 2an, *La fiesta* eskainiko dute; urriaren 9an, *Rosa la china*; eta urriaren 16an, *El bonaerense*.




Ageriko Pintura Lehiaketako lanak ikusgai

Domekan jokatutako Ageriko 30. Pintura Lehiaketan parte hartutako 21 laguneren lanak ikusgai daude kultura etxean domekara arte. 23 urtetik gorakoan artean lehen saria Vicente Iriondo eibartarrak jaso zuen, bigarrena Aitor Lajarin arrasatearrak eta hirugarrena, Esteban Oroz eibartarrak. 23 urtetik beharagoetan: Javier Ruano barakaldarrak jaso zuen lehen saria, Haizea Zelaia donostiarrak bigarrena, eta Ane Torres donostiarrak hirugarrena. /M.B.

ZAHARREN ETXETIK

Anton Arrillaga, Kartel Lehiaketako irabazlea



Itsasoan egusenti ederra margotu du Anton Arrillagak saritutako lanean.

Kultur Hamabostaldiaren zazpigarren edizioa urriaren 9tik 25era ospatuko da.

EDU MENDIBIL

Anton Arrillagak irabazi du San Joxepe elkarteak urriko Kultur Hamabostaldiari begira deitutako Kartel Lehiaketa. Hamahiru lan aurkeztu dira lehiaketara eta epaimahaiaren ustetan Arrilla-

garena izan da onena. Arrillagak 600 euroko saria jasoko du saritutako lanagatik. Lehiaketara aurkeztutako lanekin erakusketan egingo da erretiratuen egoitzan, urriaren 3tik 10era bitartean.

Kultur Hamabostaldia urriaren 9tik 25era bitartean ospatuko da. *Edadetuak, gizarte-aldaketa*


ketaren bultzatzaile izango da leloa eta antolatutako ekitaldien ardatza. San Joxepeko erretiratuek gizartean presentzia aktiboa izatea aldarrikatu nahi dute, eta, horren harira, hitzaldiak, kultura emanaldiak, mahai-inguruak, irteerak, herri bazkaria eta beste hainbat ekitaldi antolatuko

dituzte. Hain zuzen ere, aurtengo Kultur Hamabostaldiaren VII. ekitaldia izango da.

ARGAZKI LEHIAKETA

Bestalde, Kultur Hamabostaldiari begira, San Joxepe erretiratuen elkarteak Argazki Lehiaketa deitu du. Zuri-beltzeko zein kolore-

etako lanak aurkeztu ahal izango dira, irailaren 22ra arte. Lehen saria 120 eurokoa da, bigarrena 90 eurokoa eta Hamabostaldiko leloa ondoen adierazten duen lanarendako 130 euroko saria egongo da. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso daitezke.



Informatika ikastaroak

Irailaren 22tik aurrera nagusiei zuzendutako hainbat ikastaro izango dira San Joxepeko Informatika Gelan. Besteak beste, informatika hasiera ikastaroa, Internet eta Excel, PowerPoint eta Word programei buruzko ikastaroak antolatu dituzte. Izene-matea irailaren 30era arte egongo da zabalik. Interesatuak 943 76 30 09 telefonora jo dezakete argibide eske. Izan ere, San Joxepeko informatika ikastaroei harrera bikaina izan dute Informatika Gela zabaldu zenetik.



LABUR

Larrunera eta Hondarribiara irteera egunean

San Joxepe erretiratuen elkarteak Larrunera eta Hondarribiara irteera antolatu du irailaren 25erako. Bazkaria Larrunen egingo dute eta arratsaldea Hondarribian emango dute. Izene-matea irailaren 19ra arte zabalik. Argibideak 943 76 30 09 telefono zenbakian. Bestalde, mendi irteeren programazioarekin jarraituz, eguaztenterako, hilak 24, San Blas aldera irteera egingo da. Irteera 17:00etan egingo da erretiratuen egoitzatik.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK
Soinua, telebista, hozgailuak...
Matxiategi, 3
943 76 12 22
SUKALDEKO ALTZARIAK
Vegasa banatzaile ofiziala
Matxiategi, 4
943 76 37 53



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Ane Larrañaga
Irailaren 21an, 4urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Oregi
Irailaren 20an, 6urte.
Urte askotarako!
Maider eta etxeokak.



BERGARA
Alazne Laskurain
Irailaren 17an, 6urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Ainhoa Aranburu
Irailaren 21an, 5urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Ane Miren Muguruza
Irailaren 18an, 8urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Julen Etxebarri
Irailaren 20an, 2urte.
Urte askotarako!
Ibon, Eider eta Ainhize.



BERGARA
Iker Aitolagirre
Irailaren 20an, 6urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Beñat Elkoroberizbar
Irailaren 23an, 2urte.
Urte askotarako!
Aitita, amama eta Eli.



BERGARA
Jone Urrea
Irailaren 20an, 7urte.
Urte askotarako!
Miren eta etxeokak.



BERGARA
Nerea González
Irailaren 17an, 10urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Mikel Montiel
Irailaren 24an, 3urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Martin Lete
Irailaren 25an, 1urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Adi! Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan
17:00etatik 19:00etara
Elgeta: Erosie-Baltxongua



BERGARA
Julen Urresti
Irailaren 20an, 6urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30
BERGARA
Tel. eta faxa:
943 76 19 04.
Sakelakoa:
656 78 64 84.

EDEL TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49



943 76 20 61
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 7610 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).
943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA
Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA
Matxiategi 36. 943 76 90 83

ZUHURKI SL
Bidekurutzeta 46. 943 76 33 53

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA
Barrenkalea 22. 687 73 75 67

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko irailaren 19a / 170. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Egurrabei pareko lanak hasi dituzte dagoeneko


AINZANE IRIZAR

Aurreko astean hasi zituzten Egurrabei pareko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek azaldu digutenez, eurek *sarrerako atea* deitzen diotena egingo dute hantxe, autoen abiadura murrizteko. Bide batez, baserrietarako lotunea hobetu egingo dute.

Lanon helburua izango da Deskargatik behera datozen ibilgailuen abiadura murriztea. Horrela, herrira iristerako, abiadura motelagoan etorriko dira autoak eta kamioiak. Saihesbidea alde batera eta bestera zeharkatzera-koan oinezkoek eta autoek duten arriskua ekidin nahi dute Antzuolako Udaleko eta Diputazioko arduradunek.

Oraingo hauek, baina, ez dira helburu horrekin egiten dituzten lehendabiziko lanak. Orain dela urte eta erdi, 2002ko martxoan, hain zuzen ere, oinezkoendako babesgunea egin zuten Errekalde parean; irlatxo bat egin zuten orduko hartan, oinezkoen babeserako.

Antzuolako Udalak aspalditik ziharduen errepide hori arris-



Deskargatik behera datozen ibilgailuen abiadura murriztea da lanon helburua.

kutsua dela eta Diputazioari konponbidea eskatzen. Egurrabei pareko lan horiez gain, Beheko auzoko bidegurutzean ere egokitzapen lanen batzuk egiteko

asmoa daukate. Lotune horren egoera aztertu dute dagoeneko, eta Diputazioko arduradunen esanetan, abian dago proiektu hori aurrera eramateko prozesua.

FUTBOLA

Bihar, zapatua, hasiko dute denboraldia

Iazko denboraldian bi futbol talde bakarrik izan genituen: erregional mailako bat eta gazte mailako beste bat. Aurten, ordea, lau talde ditugu: erregional eta gazte mailakoena ez ezik, neskena eta kadeteena ere osatu dituzte.

Erregional mailako taldeak bihar, zapatua, hasiko du denboraldia. Etxean jokatuko du lehendabiziko partidua, 16:30ean, Arrateren aurka.

Gazte mailako eta kadete mailako taldeek ere bihar, zapatua,

jokatuko dute denboraldiko lehen partidua. Gazte mailako mutilek Azpeitian izango dute partidua, arratsaldean, Ikasberriren aurka. Kadeteek, berriz, Eibartarrak taldearen aurka jokatuko dute lehen partidua.

Nesken liga ere oraingo asteburuan hasiko da, baina antzuolarrek atsedenarekin hasiko dute denboraldi berria. Datorren zapatuan, hilaren 27an, izango dute lehenengo partidua, Estalan, Elgoibarren aurka.



Erregional mailako mutilek Arrateren aurka jokatuko dute lehenengo partidua.



Istripu ikusgarria Eguzki auzoan

Astelehen eguerdian istripu ikusgarria gertatu zen Eguzki auzoan. Bergara aldetik zetorrela, Antzuolara sartzen hasi zen auto bat stopetik, eta Bergaratik zetorren beste bat ukitu zuen; azken honek talka egitea saihesten hasi eta kontrola galdu zuen; horren ondorioz, Eguzki auzoko aparkalekuan zeuden bi autoren gainera erori zen. Istripua ikusgarria izan zen arren, ez zen zauritu larririk izan. Bi ordu baino gehiago behar izan zituzten autoak erretiratzeko. /A.I.

LABUR

Argazki Lehiaketa antolatu du Udalak urrirako

Urtero garai honetan egiten duen moduan, Argazki Lehiaketa antolatu du Udalak. Urriaren 24an bukatuko da lanak aurkezteko epea: azaroaren 1ean eta 2an, berriz, argazkien erakusketa egingo dute udaletxean.

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu; koloreetakoak edo zuri-beltzekoak izan daitezke argazkiak. Lehiaketaren gaineko informazio zabalagoa nahi duenak udaletxera jo dezake.



Sukaldaritzak lehiaketetan txapeldun

Aurreko astean Debagoieneko erretiratuen Sukaldaritzak Lehiaketa jokatu zuten Arrasaten, eta Mari Kruz Lezeta eta Juanita Urbistondo antzularrek irabazi zuten. Orain dela bi urte ere eurak izan ziren txapeldunak. Bergarako San Martin jaietako Gisatu Txapelketa ere antzularrek irabazi zuten: Trekutz elkarteko Gurutz eta Gregorió Madariagak. /A.I.

AUTOBUS GELTOKIAK

Autobusak barrura sartzeko hainbat lan

AINZANE IRIZAR

Buztinzuri kalea itxi zutenetik, autobusak ezin dira herri barrutik pasatu. Horrela, Beheko auzoko geltokira sartzeko arazoak zituztenez, autobusak kanpoan geratzen ziren, erabiltzaileendako horrek dakartzan arriskuekin eta deserosotasunekin.

Hori ikusita, hainbat konponketa lan egin ditu Udalak, autobusak beti barrura sar dai-

tezen; beheko auzoko bidegurutzean oinezkoendako babesgune inguruak txukundu egin ditu, autobusek maniobrak egiteko aukera izan dezaten.

Autobusak ez dira kasu guztietan justu geltoki aurrean geratu ahal izango, baina errepidetik barrura sartuko dira, behintzat, eta erabiltzaileak ez dira saihebidera atera behar eta ez dute errepidea zeharkatu beharrik izango.



Beheko auzorako sarreraren ondoan geratzen dira orain autobusak.

LABUR

Liburutegiak ohiko ordutegiari heldu dio oraingo astean

Udal Liburutegiak ohiko ordutegia izango du hemendik aurrera; oraingo astetik aurrera, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Udako hilabeteetan goizez bakarrik egon da zabalik, eta abuztuan, berriz, itxita.

Udaletxeak, berriz, udako ordutegiarekin jarraituko du hilabete osoan; hain zuzen, goizeko zortzietatik arratsaldeko hiruretara egongo da zabalik, urrira arte.

Nekazaritza batzordea indartu nahi du Udalak

Nekazaritza eta Ingurumen batzordea indartzea dute helburu Dina Muxikak eta Jose Inazio Beltranek, batzorde horretako arduradunek. Euren proposamena da batzordean auzo-alkateak eta auzotako beste hainbat lagunak parte hartzea, eta talde zabalagoa osatu. Udalaren nahia da auzoen eta baserriaren ahozta jasotzeko batzorde bat osatzea. Horretarako lehen urratsak eman dituzte, eta hainbat lagun gonbidatu dituzte batzordean parte hartzeko.

NEKAZARITZA

Lapatza eta Bidaurre sarituak azoketan

Aurreko asteko eguaztenean, Ordiziako Euskal Jaien barruan, lapatzako azoka nagusia egin zuten. Hantxe egon ziren Lapatza baserriko Tomas Larrañaga eta Bidaurre baserriko Kontxi Izagirre, euren produktuak saltzen. Barazkien atalean, Tomasek lortu zuen txapela, bere produktu ekologikoekin. Fruten sailean, berriz, lapatzaren saria eman zioten Kontxi Izagirreri.

Bergarako San Martin jaien barruan, berriz, Larrañagari lapatzaren saria eman zioten, baraz-

kien sailean. Kontxi Izagirrek, berriz, lehen saria eskuratu zuen bere frutekin.

SIKATEAREN ONDORIOAK

Bestalde, Kontxi eta Tomasek ere sufritu behar izan dituzte udan honetako beroaren eta sikatearen ondorioak. Nahiko lan izan dute euren baratze eta sailak ureztatzeko. Azkenean, baina, produktu bikainak lortu dituztela argi laga dute herriko baserriar horiek azken egunotan jasotako sariekin.




Bidaurrekoek lehen saria eskuratu zuten Bergaran, eta Lapatzakoek Ordizian.

EGAÑA

Era guztietako artoz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatzea eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpreñ mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko irailaren 19a / 154. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegí • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95


Sagardo Egunean zazpi kupel egongo dira plazan, Salbador kalean eta tabernetan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Bihar zapatua, hilaren 20an, Sagardo Eguna ospatuko da, Gazte Asanbladak antolatuta. Besteak beste, Tortilla Lehiaketa, antzerki saioa, herri afaria eta kontzertua izango dira. Zazpi kupel ipiniko dituzte, plazan eta hainbat tabernetan banatuta.

Azken zazpi urteotako ohiturari eutsiz, aurten ere Sagardo Eguna izango da Elgetan, udazkenari ongiatorria egiteko aitzakian. Irailaren 20a, zapatua, aukeratu dute Gazte Asanbladako antolatzailleek egun hori ospatzeko.

Ekitaldi ugari izango dira zapatu arratsaldean, eta guztiak sagardoz bustita. Izan ere, zazpi kupel ipiniko dituzte herrian, txotx egin eta nahi beste sagardo edateko. Lizeaga, Rezola, Isastegi eta Axpe sagardotegietatik ekarriko dute edaria, eta kupelak herriko hainbat txokotan banatuta egongo dira. Honako leku hauetan, hain zuzen ere: Herriko Plazan hiru, Salbador kalean bi (Haizea eta Patxi tabernen inguruan), gaztetxean bat eta Bolatoki tabernan bestea.



Tortilla Lehiaketan, lehenengo taldeak, azkenak eta tortilla orijinalena egiten duenak jasoko dute saria.

Arratsaldeko 18:00etan Tortilla Txapelketa hasiko da plazan. Izena eman duten talde guztietako kideek ordubetez patata, arrautza eta gainerako osagaiekin lane-

an jardun ostean, herriko hiru tabernarik erabakiko dute zein den tortilla onena, originalena eta txarrena, horiek jasoko dute eta saria.

ANTZERKIA

Sari banaketa amaitu eta sabela tortilla-pintxoz betetakoan, antzerkia ikusteko moduan egongo dira denak, plazan, 19:45ean.

Boni y la familia Ramírez taldeak malabare eta akrobazia ikus-kizuna eskainiko du. Antzerkia eta zirkua nahasten dituzten bi konpainiak bat egin eta ikusleekin harreman zuzenean une politak pasaraziko dizkiete gerturazten direnei. Silvia Comptek, Rogelio Rivelek eta Jordi Juantek osatzen dute taldea, guztiak ere maila handiko nazioarteko eskoletan ikasitakoak.

KONTZERTUA

Antzerki emanaldiaren ondoren, berriro ere tripa betetzera. Izan ere, herri afaria egongo da. Sagardo Egunean, zelan ez, sagardotegiko menua izango dute plateretan, eta mahai inguruan biltzen direnak alaitzeko trikitixa doinurik ez da falta izango.

Eta udazkeneko jai amaitzeko kontzertua egongo da, 23:00etan, gaztetxean.

Mal de Ojo rumba eta ijitoen erritmo alaiak lantzen dituen taldea da; Kontrairo talde arabarrak, berriz, trikitixa ekarriko du Elgetara. Beraz, dantzarako aukerarik ez da falta izango zapatuan.

Sagardoak eta musikak, jai giroa sortzeko bi osagai egokik, bat egingo dute, beraz.

KZGUNEA

Hiru ordenagailurekin abian da berriro ere KZGunea, liburutegi aldameneko gelan

I.A.

Irailaren 11n ipini zuten berriro ere abian KZGunea, denboraldi bateko etenaren ostean. Orain, egunero egongo da zabalik, arratsaldez, eta asteazketan irakasle bat izango da bertan.

Iaz, azaroan, ireki zituen atea KZGuneak, eta Interneti buruzko oinarrizko ikastaroak, 55 urtetik gorakoendako eskolak eta posta elektronikoa buruzko mintegiak eman zituzten.

Uste zuten baino jende gehiago ibili da, arduradunen esanetan. Guztira 68 lagunek eman zuten izena martxora bitartean.

IKASTAROAK

Horietatik 52k KZGuneak antolatutako ikastaroetan jardun dute. Emakumeek osatu dute ikasle kopuruaren gehiengoa (%72), eta adinari dagokionez, 35 eta 44 urte artekoak izan dira nagusi: 23, hain zuzen ere. Ikasle gehienek oinarrizko maila eskuratu dute.

ERABILTAILEAK

Emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua parekatua da erabiltzaileei dagokienez: gizonezkoak %47 dira eta emakumeak, berriz, %53. Gehienak langileak dira, baina Interneten nabigatzen dutenen artean badira langabeak, etxekoandreak, ikasleak eta erretiratuak ere.

Bestalde, ikastaroetako partaideak zein erabiltzaileak, adin tarteari begiratuta, 35 eta 44 urte artekoak izan dira gehienak: %41, hain zuzen ere.

KZGuneak etena egin du denboraldi batean eta orain berriro jarri dute abian. Hiru ordenagailu edukiko dituzte izena eman dutenek eskura, Interneten nabigatzeko. Astean behin irakasle bat joango da eta ikastaroren bat egiteko jendeak izena emango balu eskolak egongo lirateke.

16 urtetik gorako edozein herritar sar daiteke eta Elgetako KZGunean izena emanez gero, inguruko herrietako bulegoetan ere erabili ahal izango dira ordenagailuak.

LABUR

Ozkarbi elkartearen bilera orokorra hilaren 25ean

Ozkarbi elkarteak, urtero bezala, bilera orokorrerako dei egin du. Bazkideei jakinarazi nahi die batzarraren irailaren 25ean izango dela. Hala, 21:00etarako egin dute lehen deialdia eta 21:30erako bigarrena.

Bestalde, loteria hartu nahi duten guztiei horretarako aukera urriaren 31ra arte dutela esan nahi diete. Horretarako, interesatuak dirua gutun-azal batean sartuta elkarteko postontzian sartu besterik ez dute egin behar.

ELKARRIZKETA

FERNANDO ZENITAGOIA/BETERANOEN PILOTA TXAPELKETAKO ANTOLATZAILEA

“Lagun giroan pilotan jardutea da txapelketaren helburu nagusia”

Beteranoen Pilota Txapelketa izango da aurki Elgetan. Lagun giroan pilotan egiteko helburuarekin antolatu dute txapelketa hori, eta lan horretan diharduen Fernando Zenitagoiak eman digu txapelketaren berri.

Nolatan bururatu zaizue veteranoen txapelketa antolatzea?


Ikusi genuen 40 urte inguruko koadrilatxo bat bazela pilotan gustura jardungo zuena. Beraz, elkartu eta, kirolaren aitzakian, lagun giroan, barre pixka bat eginez ondo pasatzeko aukera polita zela pentsatu genuen, eta horregatik antolatu dugu txapelketa. Aurtengoa proba izango da, eta gure artean giro polita sortzen bada, datozen urteotan jarraitzea da gure asmoa, eta, ahal dela, bikote gehiagorekin.

Edozeinek har dezake parte?

Bai, apenaz ipini dugu baldintzarik. Elgetarrak izan behar dute pilotariet, eta, ahal dela, 40 urtetik gorakoak. Dena dela, ezin badugu bikote kopurua osatu, onartuko ditugu gazteagoak. Hori bai, ez oso gazteak, bestela adina abantaila izan daiteke. Oraingoz zortzi bikotek eman dute izena, eta gure asmoa hamarrera iristea da. Beste baldintzetako bat da federatua ez egotea. Izan ere, federatuek izena emango balute, beste asko atzera egingo luketen arriskua dago.

Beraz, pilota gogoko duen edozein elgetar has daiteke txapelketan?

Adina kontuan hartuz gero, pilotan jarduteko eta ondo pasatzeko gogoia duen edozein herritar onartuko dugu. Orain arte izena eman dugunok antzerako maila daukagu. Gehienok eskuz pilotan urte askoan ibili gabeak gara; ni neu, esaterako, palaz bakarrik. Txapelketa hasterako esku asko apurto edo gutxienez mindu egingo dira.



“Pilotan gustura jardungo duen koadrilatxo bat badelako antolatu dugu txapelketa”

Baina pilota bigunekin jokatu duzue, ezta?

Bai, Ozkarrik lagatako pilotekin jardungo dugu, eskuak ez mintzeko. Bestalde, lau t'erdian jokatu dugu; izan ere, frontoi osoan ibiltzea nekagarria izango litzateke.

“Lau t'erdian eta pilota bigunekin jokatu dugu partiduak, astunak ez izateko”

Zein dira faboritoak?

Maila polita egongo da. Izan ere, lehen pilotan ibilitakoak ere badira tartean. Nire ustez, irabazteko faborittoa Alex Arantzabal-Alberto Telleria bikotea da; Juan Ramon Irazabal-Iñaki Izagirre bikoak ere baditu aukerak.

HERRIKO BERRI

Kaleko 115 uso kendu dituzte udan barrena

I.A.

Udalak eskatuta, Eibarko enpresa batek herriko kaleetan zeuden 115 uso kendu ditu ekaina eta abuztua bitartean. Izan ere, herritarrak kexu ziren horiek sortzen zuten zikinkeria dela-eta. Bizirik harrapatu eta beste leku batzuetara eraman dituzte.

Usoak gero eta ugariago ziren herrian, eta ugaltze horrek herritarren kexak ekarri zituen. Usoek etxeetako balkoietan eta leiho ertzetan kaka egiten zuten eta zikinkeria hori jasanezina egiten zitzaien elgetarrei. Etxeetan ez ezik, kalean ere bati baino gehiagori egin diete usoek kaka burutik behera; esaterako, Lasao kaleko elektrizitate kablean uso asko egon ohi zen, eta bertatik pasatzean kontu handiz ibili behar izaten zuten elgetarrek.

Araza larria zela ikusita, Udalak herritarren iritzia jasotzea erabaki zuen. Gutxi batzuek besterik ez zuen esan usoak herrian edukitzea polita zela. Izan ere, uso batzuk kalean ibiltzea egokia izan liteke, baina

ugalduz gero, apaingarri ez ezik zikinkeria iturri ere badira.


KONPONBIDEA

Behin herritarren iritzia jaso zizutenean, arazoari irtenbidea zelan eman pentsatzen hasi ziren Udalean, eta Eibarko enpresa batekin jarri ziren harremanetan. Desinfekzioan adituak diren enpresa horretako arduradunek egin dute usoak Elgetatik erretiratzeke lana.

Ekainean eta abuztuan, bi txandatan, guztira 115 uso harrapatu zituzten. Usoak harrapatzeke, janaria ipini zieten trampa modura, eta behin gune batean elkartuta, sare berezi bat bota zuten eta harekin hartu. Usoak bizirik hartu zituzten, eta gero, Mediterraneo aldean aske laga.

Usoen aurkako neurri hori erabilia, orain, gutxi batzuk baino ez dira geratzen Elgetan. Hala ere, aurrerantzean arazoak sortuko balira eta herritarren kexak jasoko balituzte, berriz ere uso harrapaketa egingo dutela jakinarazi digute Udaletik.

Usoak herriatik desagerrarazteko lanek 2.000 euroko kostua izan dute.



Usoak erretiratu ostean, gutxi batzuk baino ez dira geratu herriko kaleetan.

Banatzailleak

Bariku arratsaldeetan Goienkaria banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora eta Martagatik galdetu

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

Txistulariei
omenaldia,
1957. urtean

Santi Sologaitzok eta Pedro Igartzak urte asko egin zituzten txistulari lanetan. Urte horietan egindako lana eskertzeko, 1957. urtean omenaldia egin zieten herritarrek. Omenaldi hartan, besteak beste, herriko dantzariak parte hartu zuten, argazkian azaltzen direnak, hain zuzen ere. Hona hemen argazkian azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik hasita: Benito Lamariano, Roman Garitano, Cleto Madariaga, Paulino Lete, Francisco Arizti eta Augusto Lamariano.

Bigarren ilaran, ezkerretik hasita: Juan Irizar, Victor Eztenaga, Cruz Azkarate, Abelino San Sebastian, Julian Zubillaga, Luziano Lete, Jose Manzisidor eta Faustino Garitano.

Hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: Jose Arbe, Antonio Jauregi, Eugenio Zabalo, Simon Aranguren, Simon Artolazabal eta Eulogio San Sebastian.

Argazkia: 'Antzuola 1900-1970' liburua



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK


ANTZUOLA

Simonen
etxea

Simon Artolazabal zenaren etxea orain dela hilabete batzuk eraitsi zuten, eta dagoeneko hasi dira hantxe etxebizitzak egiten. Kalebarrengo etxe ezagunenetakoa zen Simonena; horrela, pixkanaka-pixkanaka aldatuz doa Kalebarrenen itxura: Aiherrako etxebizitzak egin zituzten, Errotaberri eraberritu egin zuten eta orain, esan bezala, etxebizitzak egiten hasi dira Simonen etxea zegoen tokian.



≈2002 Simon Artolazabal zenaren etxea ezaguna zen Kalebarrenen. Orain dela hilabete batzuk eraitsi zuten.



2003 Momentu honetan etxebizitzak egiten dihardute Simonen etxea zegoen tokian. Pixkanaka aldatuz doa inguru hura.



Zumelaga

JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA


Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

XVI. mendeko zein jauregiko armari eta sarrera dira argazkietakoak?

GALDEDEBALDE

1.

Zein bikotek irabazi zuen domekan Moises Azpiazu dantza suelto txapelketa?

- A/ Aitzol Ena eta Miren Illarreta.
- B/ Asier Ena eta Maite Lazkano.
- C/ Azpitarte anai-arrebak.

2.

Zenbat film eskaintzen ditu Novedadeseko zineklubak urtean?

- A/ 50 inguru.
- B/ 30 inguru.
- C/ 20 inguru.

3.

Zeinek irabazi du San Joxepe elkarteak deitutako kartel lehiaketa?

- A/ Anton Arrillaga.
- B/ Dani Laskurain.
- C/ Mari Paz Alustiza.

BERGARAROSPETSUAK

Martin Agirre Arrijola (1)

KOLDO PEREIRA

Martin Agirre Arrijola 1567ko irailaren 11n jaio zen, Bergarako Kokote auzoko Zabaleta-Txiki baserrian. Batzuek Bergarako beste oinetxe batean jaio zela uste dute. 17 urte zituela, Alcala de Henaresera joan zen abade ikasketak egitera. 1585ean abitua jantzi eta Auñongo (Guadalajara) komentuan sartu zen. Orduetik aurrera Martin Agirre Igokundekoa izan zen bere izena. Geroago Alcalako Unibertsitate itzuli zen Filosofia ikasketak bukatzera, eta lau urte eman zituen Madrilgo San Bernardinõ komentuan Teologia ikasten. Toledon egin zen abade, 1590eko uztailen.

Hantxe erabaki zuen misiolari izatea, baina komentuko nagusiek irakasle bikaina izango litzatekeela uste zuten, horretan hastea nahi zuten. Martinek, ordea, tinko eutsi zion bere erabakiari eta oinez joan zen Sevillara, urrutiko lurraldeetara eramango zuen ontziren baten bila. Ez zuen lortu eta Alcala de Henaresera itzuli zen, porrotaren ondorioz etsita eta gaixotuta. Bertan frai Francisco Blanco ezagutu zuen eta Cadizera joan ziren elkarrekin.

“Toledon egin zen abade, 1590eko uztailen, eta hantxe erabaki zuen misiolari izatea”



ARTXIBOA



AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

RAKEL CERDEIRArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Rakel!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Harresia / Galde debalde: 1-A, 2-A, 3-B.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Gula del Norte

200 g + %25 doan

4,60€

765 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tf. 943 76 44 95

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

Sugoi


ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

GRUPO RKUZ

1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

